

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektuarekin hasteko, sare sozialen bidez publizitatea egiten hasiko gara, besteak beste, Twitter, Instagram, Facebook... Eta horrela ospe piska bat lortzen saiatuko gara hasieran. Lehen hilabeteetan jendea gure negozioan finkatzen hasteko, pertsonen arreta bereganatzen saiatuko gara, salmenten promozioen bidez. Hasieran, jendeak gure prezioak zein merkeak diren ikusarazten saiatuko gara, mota guztietako eskaintzak eginez, adibidez: zozketak, 2X1...

Bezeroen arreta bereganatzeko beste modu bat salmenta pertsonalizatua da. Horretarako, lana dela-eta asko bidaiatu behar duten familien eta pertsonen arreta bereganatzen saiatuko gara. Horretarako, Youtube bezalako plataformetan iragarkiak jartzea pentsatu dugu. Horrela, gazteenen eta haien gurasoen arreta lortuko dugu; izan ere, gero eta adin ertaineko jende gehiago sartzen ari da plataforma horietan denbora pasatzeko, eta, iragarkiak ikusten ez badu, semeak, aireportuan daudenean eta gure logoa ikusten dutenean, gure enpresak nola funtzionatzen duen azalduko die gurasoei. Beren lanagatik asko bidaiatzen duten pertsonak erakartzeko beste modu bat aireportuetako atean liburuxkak banatzea izango da, eta, horrela, publikoa normalean abioan mugitzen dena lortzea.

Gu sustatzeko beste modu bat harreman publikoak izango dira: kargu horretarako kontratatzen ditugun pertsonak enpresaren ageriko aldea izango dira. Langile horiek enpresari buruzko guztia jakin beharko dute, langileek dituzten galderei erantzuteko ardura izango baitute. Langile horiek leku askotan egongo dira banatuta, eta bezeroak erakartzeaz arduratuko dira. Pertsona horiek oso garrantzitsuak izango dira enpresarentzat, gure promozioak ahalik eta pertsonalizatuena salduko dituztelako eta familiarekin, pertsonekin, langileekin eta abarrekin harremanetan egongo direlako. Edozein motari buruzko zalantzak dituzten familiek pertsona horiengana joko dute, eta pertsona horiek beren arazoak konpondu eta bilatzen dituzten eskaintzak erraztuko dizkiete.

Gure zerbitzua kontratatzeko, pertsonak aireportura joan beharko dute eta logelak aireportuen barruan dauden postuetan alokatu beharko dituzte. Lanpostu horiek izango dituzte enpresak nola funtzionatzen duen jakinaraziko dizutenak, eta horiek izango dira gela eta gelan sartzeko giltza emango dizutenak.

Egonaldi hori amaitutakoan, bezeroek borondatezko orri bat bete ahal izango dute gure enpresarekin duten esperientzia azaltzeko. Inkesta hori erabiliko dugu etorkizuneko zerbitzuak hobetzeko.